


AIA • GETARIA • ORIO • ZARAUTZ • ZUMAIA  KIROL ALDIZKARIA

# sasolian

2013ko ekaina

35. zenbakia

**ESKOLA KIROLAREN ALDE**  
Plataforma sortu dute Zarautzen • 8

**ZARAUTZ RUGBY TALDEA**  
35. urteurrenarekin igoera • 10

**BERA BERA TXAPELDUN**  
Altuna, Ziarsolo eta Menendez • 16

**Mikel Lorenzo - Urtzi Lazkano**

**“Kenpo diziplinak bete-betean  
harrapatu gaitu” • 4**



**Erredaktorea**

Aritz Mutiozabal  
Harremanetarako: 607 615 239  
e-posta: sasoian@sasoian.info

**Argazkiak**

**Azala:** Urola Kostako Hitza.

**Sasoian 2.0:** Urola Kostako Hitza.

**Berriketa:** Urola Kostako Hitza.

**Berriketa:** Gipuzkoako Karate Federazioa eta Urola Kostako Hitza.

**Kronika:** EKAP Eskola Kirolaren Aldeko Plataforma.

**Taldeka:** Bittor Mutiozabal eta Iñigo Saiz Zubeldia.

**Kirolari gazte:** Zumaiaiko Txirindulari Elkarteak, Zarautz Kirol Elkarteak, squash atala eta Zarautz Balea Igeriketa taldea.

**Hariari firaka:** Joxemari Olasagasti, Joseba Arrillaga, Bittor Mutiozabal, Ibon Errazu eta Urola Kostako Hitza.

**Erronka:** Urola Kostako Hitza.

**Diseinua**

Roberto Gutierrez

**Maketazioa**

Saioa Perona

**Edukien garapena**

Urola Kostako Hedabideak EM

**Inprimategia**

Gertu

**Argitaratzailea**

**SASOIAN** aldizkaria **Urola Kostako**

**Udal Elkarteak** argitaratzen du.

Aldizkari honek Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko kirol albisteak jasotzen ditu.

[www.sasoian.info](http://www.sasoian.info)



**Urola Kostako Udal Elkarteak**

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko kirol albisteak, agenda nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

# Korrika erronkan, oriotarrak nagusi



**Orioko** Arraun Elkarteak antolatutako Garagardo Azokaren barruan, oriotarren eta zarautzarren arteko korrika erronka jokatu zuten maiatzaren 25ean, Orioko plazan. Lehia ikusgarria izan zen, eta, azkenean, etxeko taldea nagusitu zen, 26 segundoko aldearekin.

Hamar lagun beste hamarren aurka jokatzekoak baziren ere, bederatzik bederatziren aurka egin behar izan zuten, Zarauzko taldeak azken orduko bajak izan zituelako. Herriko plaza eta ingurua lehiarako pista bihurtuta, zirkuituari hiru itzuli eman zizkieten, 900 metroko distantzia ahalik eta azkarren korrituz. Parte-hartzaileak –Oriokoak horiz eta Zarauzkoak urdinez– binaka lehiatu ziren; hau da, taldeko korrikalari bat beste taldeko korrikalari baten aurka, txandaka. Bukaeran parte-hartzaile guztien denborak batu zituzten talde irabazlea erabakitzeko. Lehia parekatu samarra izan bazen ere, oriotarrak hasiera-hasieratik jarri ziren buruan. Kirol erronkari esker, giro ederra sortu zen herrian, eta ikusleek gogotik gozatu zuten erakusladiak.



# Familia giroan gozatzeko



Asteburua edo edozein aisialdi une egokia izan daiteke kirola familian egiteko. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana sendotzeko, ohitura osasuntsuak ikasteko eta elkarrekin gozatzeko aukera ezin hobea da, zalantzarik gabe. Gure herriko edozein txoko izan daiteke jarduera partekatze toki aproposa: jolas parkeak, ikastetxeetako futbol, eskubaloi edo saskibaloi kantzak, frontoiak, zelaiak, zabalgunek eta hondartzak. Gurasoek eta seme-alabek bat egiten duten kirol jarduera egokia aukeratzeari komeni da, bi aldeek ongi pasatu dezaten. Aukeraketa okerra eginez gero, aldeetako bat berehala aspertu daiteke, eta, modu horretan, jarduerak ez du denbora luzez iraungo. Ondorioz, lortu nahi diren emaitzak ez dira lortuko. Askotan «egotearekin bakarrik» ez da emaitza txukunik lortzen. Gurasoek eragile izan eta antolatzen dituzten kirol jokoetan partaide aktibo bihurtu behar dute. Ahalegin hori biziki eskertu ohi dute gaztetxoek. Kontuan eduki behar da seme-alabak ikaste garaian daudela, eta familian antolatutako jarduerak gurasoengana konfiantza lortzeko baliagarriak direla-baliagarriak direla, besteak beste, dituzten kezkek kontatu eta argitzeko.

## HAINBAT ARRAZOI

- Edozein kirol-jolas jarduerak **onurak dakartza seme-alaben hezkuntzarako**. Gaur egun, eskolarteko neska-mutil orok landu ohi du kirolen bat edo beste, ikastetxeetako Eskola Kiroletako arduradunek bultzatuta. Baina, askotan, eskolaz kanpoko hamaika jarduera izan ohi dituzte, eta astean zehar kirola lantzeko astirik ez dute izaten. Gurasoen ekimenez, asteburuak, jaiegunak eta oporraldiak sasoi egokiak dira dinamika hori hausteko.
- Seme-alabek gustuko dute gurasoekin kirola praktikatzeari: haien garapenaren lekuko izatea, irakastea eta elkarrekin gozatzea, hain zuzen ere. **Kirola elkarren arteko loturak estutzeko modu gomendagarrienetakoa** da.
- Kirola familian lantzerakoan, partaide guztiak ateratzen dira irabazten. Gurasoek **laneko estresa askatzeaz gain, ariketa fisikoa egiteko** baliatu dezakete. Seme-alabei primeran datorkie garapen fisikorako, eta, bide batez, **estimua, konforta eta segurtasuna** jasotzen dute gurasoen eskutik.
- Gurasoen begiradapean, txikitatik kirola egitera animatzen baditugu, ohitura osasuntsuak ikasiko dituzte umek. Era berean, **gizentasunari aurre egiteko** modu simple, erraz eta dibertigarria da familia giroan jarduera fisikoa egitea.



### Urtzi Lazkano eta Mikel Lorenzo

Kenpo borrokalariak

# «Modalitate osoa da Kenpoa; ez da borroka bakarrik»

**Borrokalari getariarrek domina sorta ederra lortu dute azken hilabeteetan, Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan. Lorenzo, gainera, Japonian lehiatuko da udan.**

**KENPO** borroka-arte praktikatzen dute Urtzi Lazkanok (Getaria, 1988) eta Mikel Lorenzok (Getaria, 1992), eta azken bi hilabeteetan hainbat domina lortu dute. Apirilean Villagarcia de Arousan (Galizia) izan ziren Euskadiko selekzioarekin, Espainiako Txapelketan, eta maiatzean Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak jokatu zituzten etxean, Getarian bertan. Koloretako gerrikoen kategorian txuritik urdinera bitartekoan artean lehiatu zen Lazkano, eta gerriko marroien eta beltzen kategorian Lorenzo; biak ala biak 80 kilo azpikoen mailan, hain justu ere. Getariako Sahatsaga kiroldetean entrenatzen badira ere, Oartzungo kenpo klubeko kideak dira.

Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak etxean jokatzek on egin zizuela dirudi.

**Urtzi Lazkano:** Egia esan, oso ongi joan da biontzat, baita taldeko beste getariarentzat ere (Ekaitz Zimmermanentzat). Niri dagokidanez, lehiatu nintzen modalitate guztietan igo nintzen podiumera: kata modalitatean eta defentsa pertsonalean Euskadiko eta Gipuzkoako txapeldun izan nintzen; kata armarekin, Euskadiko eta Gipuzkoako txapeldunorde; puntukako borrokan eta borroka jarraian, hirugarren Gipuzkoan eta Euskadin. Ez nuen uste horren ongi ariko nintzenik, baina indartsu sentitu nintzen, eta ongi atera zen dena.

**Federazioaren arabera, txapelketako borrokalari onena izan zinen, Mikel.**

**Mikel Lorenzo:** Bai, hala izan zen. Ia modalitate guztietan irabazi nuen. Izan ere, zazpi bider izan nintzen txapeldun: defentsa pertsonalean, puntukako borrokan eta borroka jarraian garaitu nuen Gipuzkoan eta Euskadin, eta kata armarekin Gipuz-

koan. Horrez gain, Gipuzkoako txapeldunorde izan nintzen katan eta kata armarekin, eta hirugarren Euskadin, kata modalitatean. Oso gustura geratu nintzen egindako txapelketarekin, eta are gehiago herrian jokatu. Sekulakoa izan zen, eta ezin dugu gehiago eskatu. Herriar asko gerturatu zen animatzera, eta horrek asko motibatu gintuen.

**U.L.:** Herritik jende dezente joan zen ikustera, eta haien berotasuna izan genuen txapelketa osoan. Oro har, egun polita izan zen; goizeko ikastaroan askok hartu genuen parte, eta eguerdiko bazkarira ere jende asko etorri zen.

**Hilabete lehenago, Espainiako Txapelketan zineten, eta zuk, Urtzi, hiru domina ekarri zenuen etxera. Aurreikusten al zenuen halakorik?**

**U.L.:** Ez nuen halakorik espero, txapelketa batean lehiatzen nintzen lehen aldia zelako. Kata arma tradizionalarekin *bo* izeneko makilarekin txapeldunordea izan nintzen. Defentsa pertsonaleko tekniken erakustaldian bigarrena izan nintzen, Mikel

## URTZI LAZKANO

Getaria, 1988



## MIKEL LORENZO

Getaria, 1992

### «**Herritar asko gerturatu zen animatzera Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan, eta horrek asko motibatu gintuen**»

Lorenzo adiskidea lagun nuela. Puntukako borrokan, berriz, hirugarren sailkatu nintzen; lehia horretan aurkariari gerritik gora jo behar zaio, eta bost puntu egiten dituen lehenak irabazten du. Zorte pixka bat izan nuen, iazko txapelketan baino parte-hartzaile gutxiago lehiatu baitziren. Hori horrela izanda ere, ez nuen uste lorpen hauek izango nituenik. Dударik gabe, sekulako ezusteko izan zen.

**Hiru domina lortzeko, aukeraren bat bazenuela pentsatuko zenuen, ezta?**

**U.L.:** Defentsa pertsonalean sentitzen nintzen erosoan, ordu asko igaro bainuen hura prestatzen. Modalitate horretan zerbait lortzeko edo ongi ibiltzeko itxaropen apur bat banuen. Txapelketa aurrera joan ahala, lasaitzen eta konfiantza hartzen joan nintzen. Gisa horretan, gauzak argiago ikusten dituzu, baita zerbait lortzeko aukerak ere.

**Txanponaren beste aldea izan zen Mikel. Esku hutsik itzuli zinen txapelketatik.**

**M.L.:** Nire kategorian maila handiagoa zegoen. Koloretako gerrikoen mailatik gerriko marroi-beltzeko mailara jauzi nabarmena dago. Borroketan, adibidez, eskarmentu handiko jendea dabil. Nik, gainera, aurtent atera dut gerriko marroia, eta, hori kontuan izanda, nahiko txukun aritu nintzela iruditzen zait. Azken finean, finalerdietara sailkatzeko atarian geratu nintzen.

**Maila aldaketarekin jauzi kua-litatibo hori antzeman al duzu?**

**M.L.:** Borrokek ez dute zerikusirik koloretako gerrikoen kategorikoekin alderatuta. Gerriko marroi eta beltzen kategorian lehiak oldarkorra-goak dira, eta ukabilkadak zuzenagoak. Nik ere, Urtzik bezalaxe, puntuka-

ko borrokan, defentsa pertsonaleko teknikan eta katan hartu nuen parte; nire kata, ordea, arma gabekoa izan zen.

**Urtzirentzat bezala, Espainia-ko Txapelketan parte hartu zenuen lehen aldia izan al zenuen?**

**M.L.:** Niretzat bigarren aldia zen. Iaz Madril hirugarrena geratu nintzen defentsa pertsonaleko ariketan, koloretako gerrikoen kategorian. Gerriko urdinarekin hartu nuen parte. Aurtent azterketarako prestatu naiz, eta txapelketa jokatu baino bi aste lehenago atera nuen marroi kolorekoa. Goiko kategoriara jauzi egin eta berehala izan zenez, gustura geratu naiz aurtengo txapelketarekin. Maila horretan lehiatzea zer zen ikustera joan naiz, zer moduz moldatzen nintzen probatzera, eta oso gustura geratu nintzen. Uste baino maila hobea erakutsi nuen.

**Getarian lortutakoak Espainia-ko txapelketako arantza kentzen lagundu zizun, ezta?**

**M.L.:** Lorpen horiek bete egin dute Espainiako hutsunean.



**Iazko hirugarren postuari esker, Japoniako Munduko Txapelketa-rako txartela eskuratu zenuen.**

**M.L.:** Uztailaren 30ean abiatuko naiz, Euskadiko selekzioarekin, eta abuztuaren 10era arte Japoniako Hamamatsu hirian izango naiz, Kenpoko Munduko Txapelketan. Kenpoa Japoniako borroka-arte tradizionala da. Gainera, Munduko onenak bertan ariko dira, eta ez dakit zer topatuko dudan. Edonola ere, maila ona erakutsiko dudala uste dut. Hori da nire asmoa. Defentsa pertsonalen eta borroken modalitateetan lehiatuko naiz. Sekulako oparia izan da, baina gogor entrenatu beharko dut, guztia eman ahal izateko.

**Motibatuta al zaude?**

**M.L.:** Azken garaipenek gehiago motibatu naute. Aurrerantz noala ikusi dut; gero eta maila handiagoa dudala, alegia. Prestakuntza bide onetik doa, eta buru-belarri jarraitu beharko dut entrenatzen. Ea zer-nolako maila ematen dudan.

**Txapelketaz aparte, gerriko beltza eskuratzeko azterketa egingo duzu Japonian bertan.**

**M.L.:** Behin hara noala, gerrikoaren kolorea aldatzeko baliatuko dut bidaia. Azterketa Kenpo maisuen aurrean gainditzen saiatuko naiz, eta

horrek errespetu handia ematen du. Horretarako ere gogotik entrenatu beharko naiz. Txapelketa baino egun bat lehenago izango da, eta espero dut gerriko beltzarekin lehiatzea Munduko Txapelketan.

**Bestalde, Espainian lortutako balentriak datorren urteko Munduko Txapelketara eramango al zaitu, Urtzi?**

**U.L.:** Ez dakit aukera hori izango dudan. Ez dut uste. Japonia oso urruti ikusten dut oraindik.

**Sekulakoa izan beharko du Japoniara joan eta haien borroka-artearen tradizioa bertatik bertara ezagutzea, ezta?**

**M.L.:** Bai. Gainera, hango egonaldia bertako biztanleen etxean egingo dugu. Kenpo borroka-arte praktikatzen duten japoniarren etxeetan, hain zuzen ere. Horrez gain, haiekin batera entrenatzeko parada izango dugu. Gero, txapelketa eguna iristen denean, aurkari izango ditugu. Euskal selekzioarekin goaz, Oiartzungo klubeko hainbat lagun, eta entrenatzailea ere bai.

**Oiartzungo klubeko kide zarete, baina Getarian taldetxo bat osatu duzue, eta Sahatsaga kiroldegian entrenatzen duzue. Nola**

**MIKEL LORENZO arma eskuetan duela, eta bere atzean Urtzi Lazkano.**

**hasi zineten Kenpo borroka-artearen lantzen?**

**U.L.:** Arratsalde batean, lagunekin txikiteatzen ari nintzela, Mikelek borroka-arte honetaz hitz egin zidan, eta horrela animatu nintzen. Kalkan-kartelak ikusita neuzkan aurretik, baina Getaria bezalako herri txiki batean Kenpo izeneko modalitate bat oso arrotza egin zen.

**M.L.:** Niri kartel horiek deigarriak egin zitzaizkidan. Betidanik gustatu izan zaizkit borroka-arteak, boxeo eta halako borrokak, eta probatzeko intentzior gerturatu nintzen kiroldegi-ira. Joan eta bertan geratu nintzen, diziplina honek bete-betean harrapatu baininduen.

**Zer du bada horren erakargarria izateko?**

**U.L.:** Modalitate osoa da. Ez da borroka bakarrik, defentsa pertsonalerako teknikak eta katak ere baditu, eta armekin aritzen gara. Horretaz gain, jolasak ere egiten ditugu gorputza lantzeko. Egia esan, entrenamenduak irauten duen ordua arrapaladan pasatzen zait niri.

**M.L.:** Gainera dugun maisuarekin are eta azkarrago pasatzen zaigu denbora. Irakasle benetan ona dugu, eta esparruko jende guztiak hori nabarmentzen digu. Beraz, horrek ere asko esan nahi du.



«**Irakasle benetan ona dugu (Juan Mari Vidal), eta esparruko jende guztiak hori nabarmentzen digu**»

**Kenpo**

## **Borroka baino gehiago**

**Zer da?** Judoa, karatea, kung-fua, kickboxinga... Borroka-arte horien ezagutza eta praktika nahikoa hedatuta dago. Kenpo modalitatea, aitzitik, ezezagunagoa da. Hala ere, asko du aipatutako diziplina horietatik. «Borroka-arte horiek denak batzen ditu Kenpoak. Karate, judo, haikido eta beste arte batzuetako mugimenduak erabiltzen dira. Alde horretatik, borroka-arte osoena izan daiteke», aditzera eman dute borrokalari getariarrek.

**Zein du filosofia?** Arte-borroka orok filosofia jakin bat jarraitzen du, eta Kenpo-kai modalitateak ere badu berea. «Gorputza eta adimena kontrolatzen laguntzen dizu», dio Mikel Lorenzok. Gehiago zehazte aldera, zera dio Urtzi Lazkanok: «Zure gorputzaren kontrola izan dezazun, aurrea burua kontrolatzen jakin behar duzu. Hori da, azken finean, Kenpo-kaiak ezagutza eta irakaskuntza».

**Getarian zer nolako erantzuna du?** Getarian lau lagun dira Kenpo-kai borroka-artearen lantzen dutenak, Sahatsaga kiroldegian, Juan Mari Vidal entrenatzailearen gidaritzapean. Urtzi Lazkanorekin eta Mikel Lorenzorekin batera, Ekaitz Zimmerman eta Josu Odriozola.

**Pentsakera okerrak.** «Jende ugari gomendatu diot, nahiz eta borroka mesfidantza ematen dion», dio Mikel Lorenzok. «Mutur joka bakarrik ibiltzen garela uste dute askok, baina guztiz kontrakoa da», argitu nahi izan du Urtzi Lazkanok. Bestalde, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean defentsa pertsonal ikastaroa antolatuta zuten, eta herriko jende asko izan zuten. «Oso gustura aritu ziren. Pentsakera horiek uxatzeko eta kirol hau ezagutzera emateko aukera ezin hobea izan zen».

**Errespetua eta ezagutza.** «Aurkariarekiko errespetu handia dago lehian, hasierako eta bukaerako agurrekin, baita borrokan ere. Gainera, kuriozoso da, baina aurkariaren mugimenduak aztertzeko ditugu, eta, nolabait esateko, ondo ezagutzen ditugu», azaldu dute getariarrek.



# Eskola kirolarekin



**Eskola Kirolaren Aldeko Plataforma sortu dute, jarduerak berezko duen garrantzia berreskuratzen, informazioa zabaltzeko eta herria sentsibilizatzen.**

«**HAURRAK IZANGO** dira benetako protagonistak eta ume guztien beharrak asetzeko asmoz antolatuko da jarduerak, beti ere legea errespetatuz». Zarauzko hainbat herritarrek eta kirol eragilek Eskola Kirolaren Aldeko Plataforma sortu dute, «berezko duen garrantzia» berreskuratzen. Kideek apirilaren amaieran aurkeztu zuten egitasmoa Zarauzko Aritzabatalde kiroldegian eginiko bilera irekian. Honakoa ez da horrelako ekimen bat abian jartzen duten lehen aldian. Oraingo honetan, ordea, indar handiagoz ekiteko eta aurrerapausoak emateko asmoz, «plataforma izaera» eman diotela adierazi zuen Mikel Troitiño surflariak.

EKAPeko kideen arabera, eskola kirolaren egungo garapena «kezka-garria» da. Kirol aniztasuna gainbeheran dago, haurrak garaia baino lehen kirol espezializatuan zentra-

tzen direlako eta errendimenduaren ikuspegia soilik indartzen delako, partehartzeko baztertuz. Horrek haurren garapen motor, sozial eta kognitiboan «eragin negatiboa» duela diote. Baita nerabeen partaidetza murriztu egin dela eta kirol modalitateen artean desorekak sortu direla ere. Era berean, kirol erakundeen arteko koordinazio falta, eta kudeaketa eta arduren banaketan nahasmena nagusitzen da. Oro har, plataformak adierazi duenez, EAEko Kirolaren Legea (14/1998) ez da errespetatzen.

Egoerari aurre egin nahian, epe laburrean bi eginkizun izango ditu plataformak. Alde batetik, Zarauzko Udalaran, kirol elkarten eta ikastetxeen artean elkarlana sustatu nahi dute, giza baliabideak, instalazioak eta laguntza ekonomikoak lortzeko. EKAPeko kide Manu Urbietaren hitzetan, eragileen artean «zubilana

egitea» dute xede. «Orain bakoitzak bere aldetik egiten du lan, eta ekimenak gainjarri egiten dira. Jarduera gehiegi daude. Egutegi bat sortu beharko litzateke, haurrei kalterik ez sorrarazteko». Bestetik, indarrak metatu nahi dituzte formakuntzan. «Egungo baliabideak erabiliz, unitate didaktikoak eta mugikorretarako aplikazioak sortuz, besteak beste», gaineratu zuen Troitiñok.

## Hainbat oinarri

Plataformak hainbat oinarri finkatu ditu, eta Iratxe Aranburu korrikalariak eman zuen horien berri agerraldian. Batetik, inor ez baztertzea du helburu nagusi: «Askotan haurtxoak baztertu egiten dira, ohartu gabe ala utzikeriagatik. Guk horiei ahotsa jarri nahi diegu, gune bat eskaini». Bestetik, bideragarria izatea bilatzen dute: «Umeei egiten duten kirol





hori guztia antolatu egin behar da». Horretarako, aurretik «lan handia» dutela ohartarazi zuen, eta plataforma horretan esku hartzeko prest dagoela.

Era berean, hezitzailea izan behar du. «Txanponek bezala, bi alde ditu eskola kirolak. Ondo pasatzen dugu, zoragarria eta osasuntsua da, baina baditu alde txarrak ere: bazterkeria, lehiakortasuna...». Ildo horretatik, balioak barnerarazi behar zaizkie haurrei. Gainera, anitza izan behar du: «Askotariko haurrak daude: behar bereziadunak, gaitasun eta maila askotakoak... Guztiak eskola kirolaren parte senti daitezten egokitu beharra dago hori guztia». Genero eta jatorri aniztasuna ere babestu behar dela gogoratu zuen. «Nahi duen orok parte har dezan», irekia behar du izan, eta baita arduratsua eta osasuntsua ere. Errespetua eta berdintasuna dira plataformaren beste oinarrietako bi.

Plataformak ez du bozeramailerik, guztiak dira «berdinak». Gainera, argi dute «eskola kirolerako ezinbesteko erreminta» dela plataforma. «Egungo gizartean zein etorkizunerakoan gure haurrak pentsamenduz, fisikoki eta aldarte sano bizitzeko».

### Atxikimendu ugari

Jende ugari bildu zen aurkezpen ekitaldian, plataforma berria babesteko. Horien tartean, herriko kirolari entzutetsuak: Realeko futbolari Dani Estrada, Eibar futbol taldeko entrenatzaile Gaizka Garitano, Axi Muniain surflaria, Jokin Argote pilotari ohia eta Bera Bera taldeko eskubalo jokalaria ohi Libe Altuna, besteak beste. Dagoeneko 200 pertsona baino gehiagok eman diote atxikimendua. Plataformari sostengua [www.eskolakirola.com](http://www.eskolakirola.com) webgunean eman daiteke.

**HAINBAT  
KIROLARI  
eta eragile  
bildu ziren  
EKAPen  
aurkezpen  
ekitaldian.**

## EKAP

### Plataformaren helburuak

- Eskola kirolak berezko duen garrantzia berreskuratzea, informazioa zabalduz eta herria sentsibilizatuz.

- Kirol aniztasuna bultzatzen jarraitzea, haurren garapen motor, sozial eta kognitibo positiboak lortzeko, eta epe luzera kirol ohiturak mantentzeko, osasun hobea baten alde.

- Kirol lehiakorra ez ezik, kirol hezitzailea indartu nahi dute, haurrak balioak oinarri hartuta (errespetua, lankidetzeta, autoestimua...) hezi daitezten.

- Kirol erakunde guztien lankidetzeta, denek bide berean lan egin dezaten.

- Atalen arteko koordinazioa, teknifikaziorako urratsak era bateratuan antola daitezten.

- Kirol aniztasuneko programa dagoen adinetan erakunde guztien konpromisoa lortu.

- Lehen Hezkuntza amaitutakoan infantil mailan sartu aurretik, eskaintza bateratua aurkeztu gurasoen eta interesa duten haurrei: entrenamendu kopurua, denek lekua izango duten, kostua, entrenatzaileen titulazioa...

- Ahalik eta ikasle gehienek jarduera fisikoa egiten jarrai dezatela (nahiz eta agian lehiaketa eran ez izan).

- Eskola kiroleko begiraleen formazioa hobetu.

- Kirol atal bakoitzak eskola kirolerako zein ekarpen egin behar dituen ondo zehaztu.

- Aisialdiko kirola eta kirol jarduerak euskara sustatzeko testuinguru aberatsak direla bermatu.

- Ezgaitasunen bat duen umeak bere eskola ingurune naturalean ekingiza hauek parte hartzeko aukera erreala izan dezan.

[www.eskolakirola.com](http://www.eskolakirola.com)

TALDEKA

# Helburuak ongi beteta

**Zarautz Rugby Taldeak Ohorezko B mailara igotzea lortu du; historian estreinakoz lehiatuko da maila horretan. Maiatzaren 22an taldearen 35. urteurreneko jaia ospatu zuten, Astin.**

**Bost urtez** Espainiako Nazional mailan jokatu ondoren, datorren denboraldian Espainiako Ohorezko B mailan lehiatuko da Sinergia Zarautz errugbi taldea. Maila horretan

jokatuko duen lehen aldia izango du, gainera. Maiatzaren 18an lortu zuen balentria, Bartzelonako BUC taldeari 18-23ko emaitzarekin irabazi eta gero; joaneko partida Astiko zelaian jokatu zuten hilaren 12an, eta han ere garaipena lortu zuten, 28-19ko emaitzarekin.

Taldeakideak pozarren daude lorpenarekin. «Denboraldia zoragari joan zaigu, orain arteko onena», adierazi du Zarautz Rugby Taldeko lehendakari Gaizka Zulaikak: «Ligan partida guztiak irabazi genituen, bat izan ezik. Ondorioz, lehen postu-

an bukatu genuen Nazional mailan, eta Ohorezko B mailara igotzeko fasea jokatzeke aukera izan dugu». Lehen kanporaketan Madrilgo CAU Metropolitano garaitu zuten, baina bigarren kanporaketan ezin izan zuten Tecnidex Valencia taldearen aurka. Bazirudien zarautzarren ametsak bidean geratuko zirela. Hala ere, mailaz igotzeko bigarren aukera suertatu zitzairen. Horretarako, Ohorezko B mailan azken postuan bukatu zutenen kontra, Bartzelonako BUC taldearen kontra, lehiatu behar zuten. Katalunia-





rrak aurkari ezagunak zituzten; izan ere, iaz haien aurka galdu zuten igoera faseko bigarren kanporaketa, eta haiak mailaz igo ziren.

«Haien aurkako bi partidak benetan gogorrak izan dira, oso lehiakorak. Beste kategoriatan jokatzeko jardun dute, baina hilabete bat zeramaten lehiatu gabe, denboraldia bukatuta. Guk errekuaratzeko tarterik ez dugu izan, guztia jarraian jokatu baitugu. Edonola ere, finkatutako helburua bete ahal izan dugu, eta orain maila berriari aurre egiteko planak egiten hasi beharko dugu», jakitera eman du taldeko lehendakariak.

### Beste motibazio bat

Kategoria bat gorago jokatzeko esfortzu ekonomiko handiagoa da elkartearantz; eta, era berean, zenbait baldintza bete behar dira: errugbi eskola eta azpiko mailako taldea izatea, esaterako. Iaz helburua lortzekotan izan baziren ere, ez zeuden jauzi hori emateko prestatuta. Aurten, ordea, posible dela ikusi du zuzendaritzak eta «taldea beste motibazio batekin» aritu da igoera fasean.

Ohorezko B maila, nolabait esateko, Espainiako bigarren maila gorenena da, eta Nazional mailarekin alderatuta, «jauzi dezentea» dagoela aitortu du Zulaikak. «Orain maila berriari neurria hartu beharko diogu, Nazional mailara igo ginenean bezalaxe. Igoera lortu dugunez, aprobezatu egingo dugu, eta helburua bertan mantetzea izango da. Plantilla oso gaztea dugu, batzuek beste 24 urtekoa, eta, alde horretatik, etorkizuna duen taldea dela esan genezake». Duela bizpahiru urte jubenil taldea osatzen zuten jokalariek ari dira gaur egun lehen taldearekin. «Esperientzia jaso dute gazteek, eta joko aldetik maila ona ematen ari gara».

Datorren denboraldirako babesle garrantzitsuen beharra aurreikusten du errugbi taldeak. «Oho-rezko B mailak beste sona bat du.

## «Orain maila berriari neurria hartu beharko diogu, Nazional mailara igo ginenean bezalaxe. Helburua mantentzea da»



Gehiago bidaiatuko dugu kanpora eta, ondorioz, jende gehiagok ikusiko gaitu. Kirolgik ere diru-laguntza emango digu. Horrek guztiak oihartzun handiagoa emango dugunez, babesle pare bat gehiago lortzeko itxaropena dugu, egungoaz aparte». Gainerakoan, Zarautz Rugby Taldeak Aste Santuko Garagardo Azokan lortutako irabaziei esker osatzen du urteko aurrekontua.

### 35. urteurrena

Zarautz Rugby Taldeak 35. urte bete ditu aurten, eta urteurrena –eta, bide batez, igoera bera ere– ospatzeko, ekainaren 22rako egun osoko jaia antolatu dute Astiko zelaian bertan. Goizean, eskolarteko haurrekin jolasak egingo dituzte, eta eguerdian 700 lagunentzako herri bazkaria, jokalaria, jokalaria ohi, guraso eta zaletu guztiak. Arratsaldean musika izango da, disko jartzaileen eskutik. Era berean, «ikus-

entzunezko bat prestatu nahi dugu aurtengo denboraldiko partidekin, eta hori ere eman nahiko genuke», azaldu du errugbi taldeko lehendakariak.

Dena dela, igoerako ospakizunekin berehala hasi ziren. Egindako balentria aitortze aldera, esaterako, Zarautzko Udalak harrera egin zion maiatzaren 22an Zarautz Sinergia taldeari udaletxean, eta bertan izan ziren Jose Luis Illaramendi alkatea eta Aser Lertxundi kirol zinegotzia.

Denboraldi osoan eta, batez ere, kanporaketetako norgehiagoketan jendetza geruratu da Astira Sinergia Zarautz animatzera, eta jarraitzaile guztien babesle eskertu du Zarautz Rugby Taldeak. «Azken urteetan gero eta jende gehiago gerturatu da partidetara. Gainera, herritar batzuk Rugbyko

Lagunak izeneko koadrilatxoak sortu dute –batik bat, kantina eramaten dutenak–, eta horiek urte osoan egoten dira, dela seniorren jardunaldietan dela kadeteetan. Astin errugbi partida badago, haiak han daude, eta horrek ere asko laguntzen du jendea erakartzen. Bestalde, kanporaketa bakoitzean mila lagun inguru elkartu dira, eta Asti bete ere egin zen. Beraz, oso gustura gaude erantzunarekin», adierazi du Gaizka Zulaikak.

# Bizikleta gainean harrobia lantzen

**Naia Urbieta eta Eider Manzisidor Gipuzkoako txapeldun eta txapeldunorde izan dira, Zumaia Korta industrialdean jokaturako txirrindulari proban txukun aritu ondoren.**

**Neguko eguraldi** gordinarekin jokatu zituzten alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txirrindularitza txapelketak, maiatzaren 18an, Zumaia Korta industrialdean. Zumaia Korta Txirrindulari Elkarteak neskek lortu zituzten emaitza onenak. Alebin mailan, Naia Urbietak irabazi zuen, eta, ondorioz, bera izan zen Gipuzkoako txapelduna. Infantil mailan, berriz, Eider Manzisidor bigarrena izan zen, eta zilarrezko domina jantzi zuen; astebete geroago brontzezko domina lortu zuen Euskadiko Txapelketan.

Mutiletan, alebin mailan, Zumaia Korta txapeldunak lau lagunek lortu zuten finalerako txartela. Txapela jokoan, Oier Unanue 7. sailkatu zen, Unai Sasiain 28. postuan, Gaizka Arrillaga 33. postuan eta Bertol Etxabe 40. postuan. Parte hartzaileak asko izan baziren ere, 40k bakarrik jokatu ahal izan zuten finala. Infantil mailan, Zumaia Korta txirrindulari taldeko bakarra sailkatu zen finalerako, eta lasterketa gogorraren ondoren, Gaizka Gurrutxaga 13. postuan helmugaratu zen.

Hernanin jokaturako Gipuzkoako taldekako txapelketan Zumaia Korta Herri Eskolakoak 2. sailkatu ziren, alebin mailan. Alde txikiagatik izan bazen ere, ez zuten hirugarren urtez jarraian txapela jantzi.





## DATUA

## 4

Zumaiaiko Itxas-Gain piragua elkarteko mutilek brontzeko domina eskuratu zuten kadete mailako Espainiako Kopan (1.000 metroko proba), K4 modalitatean. Txapelketa Trasonan (Asturias, Espainia) jokatu zuten, maiatzaren 25ean, eta ez ziren Zumaiaiko ordezkari bakarrak izan. Irati Osa bakarka aritu zen (K1), eta primerako finalerdia osatu bazuen ere, final nagusira sailkatu; B finala irabazita, 10. postuan geratu zen. K2 modalitatean bi ontzi eraman zituen Itxas-Hainek: batean, Imanol Berruetabeña eta Unai Gereka, eta bestean, Unai Azkune eta Martín Egaña. Bi ontziak finalerara pasatu ziren; Berruetabeña-Gereka bikoteak 7. postua lortu zuen final nagusian, eta Azkune-Egaña 8. izan zen C finalean.



## BA AL DAKIZU...

### Nortzuk osatu zuten K4 ontzia?

Itxas-Gaineko K4 ontzia piraguista gazte hauek osatu zuten: Imanol Berruetabeña, Martín Egaña, Unai Gereka eta Kepa Txapartegik, hain zuzen ere. Final nagusian brontzea erdietsi zuten, estropada estua jokatu ondoren. Garaipena eta, ondorioz, urrea Sevillako Club Nauticoarentzat izan zen, eta zilarra Irungo Santiagotarrakentzat; lehen taldeak 2 segundo atera zizkien, eta bigarrenak, berriz, 4 hamarreneko eskas.

## Kaiola barruko pilotakadak

**Haurren III. Squash Txapelketan eskolarteko 32 neska-mutilek hartu zuten parte, Aritzbatalde kiroldegian.**

Zarautz



**ZKEko squash atalak antolatuta,** Haurren III. Squash Txapelketa jokatu zuten maiatzaren erdialdean Zarauzko Aritzbatalde kiroldegiko kantxetan. Bertan, benjamin, alebin eta infantil mailetako eskolarteko neska-mutilek hartu zuten parte. Guztira 32 lagun elkartu ziren. Egun osoko jardunaldia izan zen, eta bertaratu zirenek partida ikusgarriak eta

politik ikusteko aukera izan zuten. Benjaminetan Andoni Etxabe izan zen garaile, Beñat Manterolari 2-0ko emaitzarekin irabazi ondoren. Alebin mailan, berriz, Alex Agirre oriotarrak irabazi zion Juan Sorreluzi, 2-0eko emaitzarekin. Eta infantil mailan, azkenik, Gaizka Parmok 2-1eko markagailuarekin gailendu zen, Nestor Etxeberriaren aurka.

Zarautz

## Domina sorta

Zarautz Balea igeriketa taldekoek 9 domina lortu zituzten Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan, Legazpiko Bikuña igerilekuan. Nikolas Illaramendi urrezkoa lortu zuen 200 metro libre estiloan, eta zilarrezkoa 400 metro librean. Erik Aranburuk zilarrezkoa 100 metro bular estiloan eta brontzekoa 200 metrotan. Unai Zabalak zilarrezkoa 400 metro estiloan. Jon Idarretak brontzekoa 100 metro tximeletan. Itziar Zabalak brontzekoa 200 metro estiloan. Nerea Fernandezek brontzekoa 400 metro estiloan. Taldeko mutilek 4x100 metrotan brontzekoa.



Zarautz Triatloia

# Marmokak, euria eta duatloia

**Euria izan zen** Zarauzko Triatloiko protagonista nagusia hasieratik bukaeraraino, baina triatletek eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta lan bikaina egin zuten aurtengoan ere. Dena dela, euria ez zen izan oztopo bakarra, proba jokatu aurretik hasi baiziren gauzak okertzen. Alde batetik, bizikletaz egin beharreko ibilbidea goitik behera aldatu behar izan zuten azken astean, Getaria eta Zumaia arteko N-634 errepidean, Arranaitz parean zabaldutako zuloaren ondorioz; Aia eta Andazarrate inguruan finkatu zuten zirkuitu berria. Bestetik, hondartza marmokaz beteta zegoelako, igeriko proba bertan behera uztea erabaki zuten antolakuntzak. Ondorioz, duatloi forma toa hartu zuten probak: 9 kilometro korrika, 82 kilometro bizikletan eta 14 kilometro korrika egin behar izan zuten, hurrenez hurren.



Faboritoek ez zuten hutsik egin, eta aurreikuspen guztiak bete ziren. Gizonezkoetan, Eneko Llanos gasteztarrak hamargarren aldiz irabazi zuen Zarauzko Triatloi, 03:42:50ko denborarekin; Aimar Agirresarobe tolosarra izan zen bigarrena eta Mikel Elgezabal gasteiztarra hirugarre-

**ENEKO LLANOS bizikletan, Zarauzko errepidean.**

na. Emakumezkoetan, Cat Morrison eskoziarrarentzat izan zen txapela –garaipena lortzen duen hirugarren aldia–, ibilbidea 4:09:16ko denboran osatu eta gero. Laudion bizi den Radka Vodickova poloniarra izan zen bigarrena, eta Estefania Gomez kantabriarra hirugarrena.



## Garagardo azoka «arrakastatsuan», Agirretxe eta Blanco Mirotxa saridun

Orio Arraunketa Elkarteak gustura agertu da garagardo azokak izandako erantzunarekin. «Arrakasta» izan zuela nabarmendu dute, eta eskerrak eman dizkiete herritarrei, «lagundu dutenei eta azokaz gozatu dutenei». Elkartearen arabera, 1500 bat lagun igaro ziren azokatik maiatza bukaeran. Irekiera egunean, Mirotxa Saria eman zieten Oiana Blancori eta Imanol Agirretxeri.

## Aia Automobilismoa Ziztu bizian



**Aitor Zabaletak** ez zuen hutsik egin, eta bera izan zen garailea Aiako Auto Igoeran. Zumaian bizi den Aitor Arakistain bigarrena izan zen; Gorka Eizmendi aiarra zazpigarrena izan zen sailkapen orokorrean, eta bigarrena turismoetan, Aitor Ibon Ramirezen atzetik. Giro aparta izan zen proban, eta zaletuek biziki gozatu zuten gidarien erakustaldiarekin.



# Kirol AGENDA



## Zumaiako V. Flysch Trail lasterketa

Zumaiako V. Flysch Trail lasterketa uztailaren 21ean jokatu da, eta izena [www.herrickrossa.com](http://www.herrickrossa.com) webgunean eman daiteke. Aurten hainbat berrikuntza izango ditu probak. Lasterketa nagusia 10:00etan hasiko da, Beheko Plazatik, eta iazko zirkuitu bera izango du (31,2 kilometrokoa). Ondoren, 10:20ean, junior mailakoak eta lasterketari popularrak irtengo dira. Era berean, lasterketa laburragoa (15,2 kilometrokoa) egiteko aukera jarri dute. Lasterketei hasiera eman aurretik Iker eta Eneko Pou anaiak eskalatzaileak omenduko dituzte.

## Xakea

Euskadiko XXVIII. Beteranoen Xake Txapelketa

Eguna: Ekainak 15 eta 16.

Ordua: 10:00etatik 13:00etara.

Lekua: Zarautz Kirol Elkartearen egoitza.

**Ezaugarriak:** Bi egunetan jokatu da Euskadiko beteranoen txapelketa. Ondoren, maiatzaren 30ean, Teafilo Gilen oroimenezko txapelketa jokatu dute; Musika Plazan izango da, goizez.



## Igeriketa

XLIII. Getaria-Zarautz

Igeriketa Zeharkaldia

Eguna: Uztailak 21.

Ordua: 12:00etan iteera.

Lekua: Getariako portutik Zarauzko hondartzaraino.

**Ezaugarriak:** 2.800 metroko itsas zeharkaldia, Getariatik Zarautzera. Izena ekainaren 30era arte eman ahal izango da, Kirolprobak.com webgunean; 22 euro, txipa dutenek, eta 25 euro, gainerakoek



## Ibarrako taldea txapeldun, Aiako probalekuan

I. Bizi-Iturri Saria-Gipuzkoako Txapelketa emakume proba jokatu zen Aian, San Asentzio Azokaren bezperan. Orioko, Ergobiako eta Ibarrako emakume taldeak 550 kiloko harriarekin aritu ziren lehian. Azkenean, Ibarrako taldea izan zen garailea, 30 plazarekin. Bigarren postuan sailkatu ziren oriotarrak, 29 plaza, 7 zinta eta 1,10 metroarekin. Ergobiako taldea izan zen hirugarrena, 28 plaza eta 6 zintarekin.

## Zarautz Mendia 200 lagun



**Eguraldi euritsuak** ez zituen korrikalariak kildu, eta 200 lagunek osatu zuten X. Pagoeta Mendi Lasterketa. Probako marka inork hautsi ez bazuen ere, lehia polita ikusi ahal izan zen lasterketa buruan zihozazaren artean. Azkenean, Iker Oliveri hondarribiarra izan zen garailea gizonetzkoetan, 1:06:11ko denborarekin, eta Nerea Amilibia aiarra, emakumezkoetan, 1:22:23ko denborarekin. Emakumezkoetan, bigarren postuan helmugaratu zen Uxo Irigoien getariarra, Amilibiarengandik 2 minutu eta erdira. Urtero bezala, giro ederra izan zen nagusi ibilbide osoan, baita helmuga puntuan ere.



## ERRONKA

# Historiako lehen liga

**Espainiako Liga irabazi dute Libe Altuna, Alba Menendez eta Matxalen Ziarsolo eskubaloijokalariek, Bera Bera taldearekin; taldeak bere ibilbidean lortutako lehen Liga titulua da.**

**Donostiako** Bera Bera eskubaloitaldeak Espainiako Liga irabazi du aurten, bere historian estreinako aldiz. Azken jardunaldian lortu zuten balentria, Castroren aurka 18-32ko emaitzarekin irabazi ondoren. Une zoragarria bizi zuten Bera Berako jokalariek Alba Menendez zarautarrak eta Zarautzen bizi den Matxalen Ziarsolo ermuarrak, baita egun jokalaririk ohia den Libe Altuna zarautarrak ere; testu honetako Altunaren adierazpenak eskubaloia utzi aurrekoak dira. Azken aurreko partidaren ondoren hasi ziren ospakizunekin. «Zale asko bildu zen harmailetan, eta Reyes Karrere entrenatzailearen eta Eider Rubio taldekidearen azken partida izan zen zaleen aurrean. Berezia izan zen», dio Ziarsolok.

Liga irabazteko sekretua, Altunaren ustez, ez da talde ona edukitzea bakarrik: «Izan ditugu talde onak, baina helburuak gauzatu ez. Aurten, egoera guztiak aldekoak izan ditugu. Bi urtean maila bera eman dezakezu, baina emaitza oso ezberdinak lortu. Azkenean, aldagai asko hartu behar dira kontuan». Era berean, bi jokalariek ez zaie iruditzen Liga irabazteak klubaren egitasmoa aldatuko duenik. «Aldatzekotan onerako aldatu behar da; esan nahi dut, hobetzen segitu behar da», aditzera eman du Ziarsolok: «Ezin da konformatu ira-



bazi egin dugulako. Baina, oraindik urruti dago datorren denboraldia».

Ligaren hasieran, Bera Beraren izena aipatzen zen titulua irabazteko talde faboritoen artean, eta ez du hutsik egin. «Faboritoak ginen, baina ez geneukan liga bat bera ere irabazita», gogoratu du Ziarsolok: «Lan handia egin behar da liga irabazteko, oso konstantea izan behar da, eta hasieran kosta egiten zitzaigun. Urtarrilera arte ez gara lehen postuan jarri. Guri beti kostatu izan zaigu etxetik kanpo ondo aritzea, eta liga irabazteko ezin duzu partidarik galdu». Taldea faboritotzat jotze hori ez zuten ondo ulertzen, orain arte ez zutelako bat bera ere irabazi. Orain, txapeldun direla, datorren denboraldian faboritotzat jotzea ulergarriagoa dela diote.

Liga irabaztearen oihartzunaren eraginez, fitxaketan gorabeherak hasiko dira. «Beti gertatu izan da hori», dio Altunak: «Joan eta etorri ibiltzen

**LIBE ALTUNA eta Matxalen Ziarsolo, Bera Bera taldeko eskubaloijokalariek.**

dira jokalariek. Batzuk joan egiten dira, eta besteak etorri. Baina hori bai, ez naiz ohitzen gurekin egon eta gero kanpora joaten direnen egoerarekin». Ligako hainbat jokalariek beste herrialde batzuetara joan dira jokatzerara. Ziarsolori tentatzen dio proposamenak, baina horrek ez du esan nahi horretan pentsatzen ari denik. «Esperientzia polita izan behar du kanpora bizitzera joatea, baina hemen segitzea erabaki dut, eta pozik nago. Momentu ona da hemen geratzeko».

Altunak, bere aldetik, eskubaloia uztea erabaki du. Sakon hausnartu ondoren, jokalariek profesionala izateari utzi eta ikasketek dagokien lanbidea topatzeari eman nahi dio lehen-tasuna. Bederatzi denboraldi jokatu ditu Bera Bera taldearekin, eta Liga, bi Superkopa eta hiru Kopa irabazi ditu. Bera Berak urte hauetan guztietan erakutsitako inplikazioa eskertu nahi izan dio.